



**EKONOMIA ZIRKULARRA BERRITZEKO DIRULAGUNTZAK
- 2022ko deialdia -**

**1. ildoak. Ekodiseinua eta Erakustaldia Ekonomia Zirkularrean
2. ildoak. Ekoberrikuntza Estrategikoa**

OHIKO GALDEREN (FAQ) GAKOAK ETA ERANTZUNAK

1. LAGUNTZA HAUEK ZERTARAKO?

Laguntza hauen bidez, Euskadiko ekonomia zirkularrearen helburuak lortzera eta, ondorioz, berotegi-efektuko gasak murriztera bideratuta dauden euskal enpresen ikuspegi berritzaileak sustatu nahi dira.

Zehazki, honako hauek lortzeko laguntzen dute:

- Ekonomia zirkularrearen bidez berotegi-efektuko gasen (BEG) emisioak gutxitzea, ekoizpen-prozesuetako baliabideen eraginkortasuna sartuz.
- Lehengaien kontsumoa murriztea eta, bereziki, lehengaiak ez isurtzea.
- Enpresa-jarduera jasangarriak sortzea, Euskadiko ekonomia berdea berreskuratzen, lehiakortasuna hobetzen eta enplegu kualifikatua sortzen laguntzeko.
- Lurraldearen ingurumen-erresilientzia handitzea, merkatu globalean errepikakortasun handia duten soluzio teknologiko berritzaileen bidez.
- Enpresen arteko lankidetzak sendotzea, Europako tresnek ("drivers") dakartzaten erronka eta aukerei aurre egiteko.

2. ZEIN LAGUNTZA ILDO EZARTZEN DIRA DEIALDI HONETAN?

1. ildoak.- Ekodiseinua eta erakustaldia ekonomia zirkularrean: ildo honen helburua enpresek irtenbide berri bat, frogatua eta bideragarria, merkatuan jartzea da, honen bidez:

- Ekipoak, produktuak, materialak edo negozio-ereduak ekodiseinatzea, bizi-zikloaren analisiaren ikuspegitik ingurumen-aztarna hobetuko duten garapen teknikoak edo prototipoak lortzeko, aurreko beste aukera edo eredu batzuekin alderatuz.
- Proba pilotuen, industriaurreko proben edo proba industrialen bidez, xahutzeari aurrea hartzeko eta materialen balio maximoa berreskuratzeke eta produktuen eta osagaien bizi-zikloa zabaltzeko hainbat irtenbideren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa eta ingurumenekoa frogatzea.

2. ildoak.- Ekoberrikuntza estrategikoa: ildo honen helburua irtenbide ekoberritzaile bat garatzea da, ekonomia zirkularreko eta baliabideen eraginkortasuneko Europako politika-tresna bati ("driver") erantzungo diona eta EAEn merkatu-aukera bat sortuko duena. Proiektuak estrategikoa izan beharko du enpresa sustatzailearentzat eta euskal balio-katea aktiboki inplikatu beharko du. Ildo hau aurrekoarekiko bereizten da, heldutasun-maila (TRL) txikiagoa delako eta balio-katean lankidetzat handiagoa delako.

3. ITZULI BEHARRIK GABEKO ZEIN DIRULAGUNTZA LOR DEZAKET?

Ildo bakoitzerako, proiektu bakoitzarentzat itzuli beharrik gabeko gehieneko laguntza hau da:

- 1. ildoak Ekodiseinua eta Erakustaldia ekonomia zirkularrean 30.000 €
- 2. ildoak Ekoberrikuntza Estrategikoa 150.000 €



Laguntzak gehienez ere kostu hautagarrien %60koak izanen dira enpresa txikientzat, %50ekoak ertainentzat eta %40koak handientzat.

4. ZEIN DIRA ESKATZEKO EPEAK?

Laguntzak eskatzeko eta proiektuak bukatzeko epeak hauek dira:

	1. ildoa Ekodiseinua eta Erakustaldia Ekonomia Zirkularrean	2. ildoa Ekoberrikuntza Estrategikoa
Eskaerak aurkeztea	Eskaerak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, Agindua EHAAn argitaratzen denetik hasita.	
Proiektuak gauzatzea	2023/12/31	2024/06/30

5. GAIEI BURUZKO LEHENTASUNIK BADAGO?

Bai. “2022ko lehentasunak” dokumentuetan eta I. eranskinean zehazten dira.

Lehentasunezko 9 esparru definitu dira 49 azpi-esparrurekin.

Hauek dira **produktuaren arloko** lehentasunezko gaiak:

- Ekipamenduen, osagaien eta mugikortasunaren ekodiseinua
- Ontzi eta bilgarrien ekodiseinua
- Iraunkortasuna lortzeko zerbituzioa
- Birmanufaktura eta konponketa aurreratua

Material arloan, lehentasunak honako hauek dira:

- Teknika erabilgarri onenak
- Funtsezko metalak eta material kritikoak
- Plastikoak
- Mineralak eta eraikuntzako materialak

Lurralde arloan, lehentasunak honako hauek dira:

- Kutsatutako lurzoruak konpontzeko eta deskontaminatzeko teknologiak

Lehentasunezko esparru hauek “Lehentasunezko esparruekin bat etortzea” balorazio-irizpideari laguntzen diote, baina ez dira baztertzailerak. Beraz, lehentasunezko zat jotzen ez diren beste esparru batzuetan aurkez daitezke laguntza-eskaerak.

6. ZEIN BALORAZIO IRIZPIDE ERABILTZEN DIRA?

Deialdiaren bi ildoak Aginduaren 18. artikuluan zehaztutako irizpide berberen arabera baloratuko dira, baina modu bereizgarrian haztatuko dira helburuaren arabera.

Balorazio irizpideak	1. ildoak Ekodiseinua eta Erakustaldia	2. ildoak Ekoberrikuntza Estrategikoa
Proiektuaren izaera berritzailea	15	15



Ingurumen-emaitzen garrantzia	15	10
Lehiakortasunerako ekarpena	20	20
Proposamenaren metodologia eta koherentzia	15	15
Lehentasunezko esparruekin bat etortzea	25	20
Proiektuak balio-katean edo beste sektore batzuetan duen eragina	10	20
GUZTIRA	100	100

“Ekoberrikuntza Estrategikoa” izeneko 2. ildoak balio-katean duen eragina gehiago haztatzen du, hau da, enpresa sustatzailea bera baino erakunde gehiago partaide izango duen irtenbide baterantz joatea.

7. ZEIN GASTUETARAKO EMANGO DA DIRULAGUNTZA?

Dirulaguntza Laguntzei buruzko Aginduaren 7. artikuluan agertzen diren kostu hauetarako emango da:

- Langileak (% 80 gehienez, gehiago bada, nabarmen murrizten da finantzaketa)
- saiakuntza teknikoak
- ustiapen materialak eta hornidurak
- gastu gehigarriak
- kanpoko aholkularitza (%60 gehienez)
- tresnak eta ekipamenduak

Berariaz salbuesten dira inbertsioa, Laguntzen Agindua EHAAn argitaratu aurreko kostuak, bai eta software komertzialaren garapena edo erosketak (algoritmoen definizioa kanpo), web-garapena eta sustapen orokorreko materialak ere.

8. NORI ZUZENDUTA DAGO LAGUNTZA DEIALDI HAU?

Laguntza hauen onuradunak euskal enpresa pribatuak dira, batez ere industria-sektorekoak, bai eta konponketa-zerbitzu aurreratuak eta industria-sektorearekin lotutako beste zerbitzu batzuk ere, oinarrietan jasotako baldintzak betetzen badituzte eta proiektuan sustatzaile edo bazkide gisa parte hartzen badute.

Proiektu berritzailearen emaitzak ahalik eta gehien aplikatu ahal izateko, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sareko kideak, industria-enpresa-talde batekoak ez badira, proiektu bateko kide edo azpikontratista izan daitezke, baina ezin dira proiektuaren sustatzaile izan. Baldintza hori bera aholkularitza-enpresei ezartzen zaie.

Erakunde onuradunek betebeharrak izan behar hauek izan behar dituzte:

- Helbide soziala edo gutxienez jarduera-zentro bat EAEn izatea
- Diruz lagundutako jarduera gehienak EAEko instalazioetatik egitea.
- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak araututa izatea
- Sozietatea 2022/01/01 baino lehen eratu izana

9. DIRULAGUNTZEN ZEIN ARAUTAN OINARRITZEN DA DEIALDI HAU?



Erreferentziazko araudia “Europako Batzordearen 651/2014 Erregelamendua, barne-merkatuarekin bateragarriak diren laguntza-kategoria zehatzak deklaratzeko dituen” da; zehazki, “Ikerketa- eta garapen-proiektuetarako laguntzak” izeneko 25. artikulua. Horregatik, laguntza hauek EZ dira arautzen “minimis” araudiaren eta hari dagozkion mugen arabera.

10. ZER BERRIKUNTZA SARTU DIRA 2022ko DEIALDIAN?

Deialdi honetako berrikuntza nagusiak hauek dira:

- Oinarri arautzaileak **Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordearen** Agindu bihurtzen dira, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko dira. Hark ere emango du ebazpena. Ihobe kudeaketa- eta aurre-balorazioko funtzioak hartuko dituen erakunde laguntzailea izango da (13. artikulua)
- Eskabide guztiak modu elektronikoa bideratuko dira.
- **Lehenengo ordainketa**, kaleratze-bilera ondoren, **%50ekoa izango da**. %50eko bigarren ordainketa proiektuaren itxiera tekniko, ekonomiko eta administratiboa baliozkotzean egingo da
- **Ekoberrikuntza Estrategikoko 2. ildorako** eskaera baterako itzuli beharrik gabeko laguntzaren gehieneko zenbatekoa **150.000 €-ra igo da** proiektuko
- 2022an, **“Proiektuaren aurretiazko ideien fitxen” bidezko aurretiazko kontsulten etapa alde batera uzten da**
- **Zalantza** tekniko edo administratiboak izanez gero, enpresa eskatzaileek kontsultak egin ahal izango dituzte:
 - daz_sas@ihobe.eus
- Proiektu guztiei Bizi-Zikloaren Análisis (BZA, sinplifikatua izan arren) egin behar zaie. Ekodiseinuko proiektu batean, BZA diseinuaren irizpide bihurtzen da.

11. ZEIN KONPROMISO HARTZEN DITU LAGUNTZAREN ONURADUN DEN ENPRESAK?

Konpromiso nagusiak (25. artikulua) hauek dira:

- Emandako dirulaguntza eman den xederako erabiltzea.
- Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzari, Ihobe erakunde laguntzaileari eta Eusko Jaurlaritzako Kontrol Ekonomikoko Bulegoari eskatzen zaion informazioa ematea
- Deialdi honen bidez emandako dirulaguntzaren jatorriari buruzko publizitate egokia egitea, Eusko Jaurlaritzara espresuki aipatuz
- Ihobe Erakunde Laguntzaileari proiektuaren emaitzak ematea, ebazpena eman eta hiru urtera gutxi gorabehera, Ihobek behar dituen emaitza-adierazleen taula osatuz
- Proiektuaren eta haren emaitzen laburpena jendaurrean jakinaraztea eta proiektuaren inguruan egiten diren informazio jardueretan adostasunez parte hartzea

12. ZEIN ERAGIN-EMAITZAK LORTU NAHI DITU DEIALDI HONEK?



Jarraian, proiektuaren emaitzak eta eragina kalkulatzeko lhobek zenbait etapatan (eskaera, proiektuaren tarteko mugarrira, itxiera eta proiektua hasi eta 3 urtera) bilduko duen informazioa (kualitatiboa, estimazioa edo datua) jaso da (Aginduaren 6.2.b artikulua).

Sustatzaileak informazio hori prestatu eta aurkeztu beharko du, behar den epean eta moduan.

Z	Eragin-adierazleak	Eskaera	Itxiera	3 urte ondoren
1	Proiektuak sortutako fakturazio gehigarria (milioi €/urte)	Z	Z	Z
2	Proiektuaren emaitzak enpresaren fakturazio orokorrari egiten dion ekarpena (%)	-	-	Z
3	Proiektuaren ondoriozko inbertsioa (milioi €/urte)	-	Z	Z
4	Produktuaren aleko kostuaren aldaketa (%)	Z	Z	Z
5	Marjina gordinaren gehikuntza (mozkinaren %)	Z	Z	Z
6	Sortutako enplegu osoa/espezializatua (kop.)	Z	Z	Z
7	Merkatu-kuotaren gehikuntza (%)	-	-	Z
8	Konponbidearen transferigarritasuna (enpresa kopurua)	Z	Z	Z
9	Berotegi-efektuko gasen murrizketa (tona BEG/urte)	Z	Z	D
10	Materialak aurrezteak (tona/urte)	Z	Z	Z
11	Isuri gabeko hondakinak (tona/urte)	Z	Z	D
12	Time to Market-aren azelerazioa (%)	-	E	E
13	Proiektuak finantzaketa pribatua lortzen laguntzen du (0-10)	-	E	Z
14	I+G+b proiektu eratorri berriak (kop.)	-	Z	Z
15	Ezagutza eta merkatuko akordio berriak (kop.)	-	Z	D
16	Lankidetzak publiko-privatuaren garrantzia (0-10)	-	E	E
17	Garapen teknologikoaren azken maila (TRL 1-9)	Z	D	D

Legenda:

1. **Letra lodiz:** adierazle garrantzitsuenak
2. **Informazioaren sendotasuna:** Z: itxiera baino hiru urte lehenagoko zenbatespen arrazoitua; D: datu errealak; E: erantzun subjektiboa
3. **Kontsulten etapak:** **Eskaera:** Proiektuaren eskaeran; **Itxiera:** proiektuaren amaieran; **3 urte ondoren** : lhoberi jakinarazi, proiektua amaitu eta 3 urtera.

13. AZPIKONTRATAZIOARI DAGOKIONEZ, BERARIAZKO BALDINTZARIK BADAGO?

15.000 €-tik beherako azpikontratazioetarako EZ dago inolako eskakizunik. Hala ere, Europako arautegiak 15.000 eurotik gorako azpikontratazioetarako BAI ezartzen ditu jarraibideak. Azpikontratazio horietarako hiru aukera ezarri dira (8. artikulua):

Aukerak hauek dira:

- eskaera aurkeztean behin betiko hornitzailea izatea; beraz, oinarrien prozedura aplikatu beharko izango da hiru hornitzaileari eskaintza eskatu aurretik, eta eskabidean bertan justifikatu beharko da.
- kontratazioa esleipena egin ondoren gauzatzea. Kasu horretan, prozedura aplikatu dela azken memorian justifikatu beharko da proiektua amaitzean.
- nazioarteko hornitzaile bakarra dagoela eta egokia dela behar bezala eta zehaztasunez justifikatzea. Hori gertatzen da beste hornitzaile batzuk aurkitu izan ez direnean (bilaketa justifikatua egin ondoren), patenteak aplikatzen direnean edo hornitzaile horrekin konfidentzialtasunari lotutako aurretiko lanak egin direnean.

Eskaintzak baloratzeko txosten labur bat egitea errazagoa izan dadin, proiektuan zer azpikontratazio sartu behar den erabakitzen laguntzeko, "Azpikontratazio-eredua" ematen da.



Salbuespenez, azpikontratazioa 60.000 €tik gorakoa bada, dirulaguntza ematen duen erakundeak idatziz baimenduko du kontratua, hura gauzatu aurretik.

14. ZERTAN DA EZBERDIN “EKOBERRIKUNTZA ESTRATEGIKOA” ILDOA (2. ildo) “EKODISEINUA ETA ERAKUSTALDIA EKONOMIA ZIRKULARREAN” ILDOAREKIKO (1. ildo)?

Ekoberrikuntza Estrategikoaren 2. ildo garapen eta berrikuntza proiektuak bultzatzera bideratuta dago, batez ere industriakoak, sustatzailearen esparrutik haratago doan irtenbide bat lortzeko; esate baterako, balio-kateak proiektuan parte hartuz, herrialde-ikuspegiarekin haren gaineko eragin positiboak sortuz edo konponbideak beste sektore batzuetara transferitzea lortuz:

- Ekonomia zirkularreko eta baliabideen eraginkortasuneko Europako politiketatik eratorritako erronka bati (“drivers”) erantzutea (ikus “2022ko laguntza-deialdietarako lehentasunezko esparruak”). Erronka hori estrategikoa izan beharko da enpresan edo balio-katean.
- Garapen teknologikoaren maila (TRL) txikiagoa da, eta 1. ildoko proiektu gehienak baino urrunago dago merkatutik.
- 2. ildoaren balorazioan, gehiago haztatuko da “proiektuak balio-katean edo beste sektore batzuetan duen eragina” irizpidea.

15. ZEIN DIRA ESKAERAK AURKEZTEAREKIN LOTUTAKO AKATSIK OHIKOENAK?

Hauek dira akats ohikoenak:

- **Langileen kostuak** emandako dirulaguntzaren %80 baino gehiago izatea. Irizpide hau mugatzailea da, eta Negozio-eredu Zirkularra garatzeko proiektuetan bakarrik gainditu daiteke.
- 70€/ordu baino langile-kostu handiagoak izatea (oso kualifikazio handiko enpresa-profesionalentzat aparteko kostua da hori).
- ETEen kasuan, dirulaguntza eskatzeko memoria teknikoa eta ekonomikoa egiteko **laguntza aholkularitzarik** ez izatea. Behin baino gehiagotan, proiektua gutxiago finantzatzea eragin duten akatsak ekarri ditu.
- Proiektuaren aldaketa teknikoen berri ez ematea haren jarraipenaz arduratzen den Ihobe erakunde laguntzaileko pertsonari.
- Behar bezala eta zorrotzasunez ez justifikatzea, eskala globalean hornitzaile bakar bat dagoela 15.000 €tik gorako azpikontrataziorako.
- Eskaearen aurkezpen elektronikoa osoa ez egin.

16. NOLA LAGUNTZEN DIO INGURUMEN JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDETZAK (INGURUMEN KALITATEAREN ETA EKONOMIA ZIRKULARRAREN ZUZENDARITZA ETA IHOBE ERAKUNDE LAGUNTZAILEA) PROIEKTUARI?

Emandako dirulaguntzaz gain, Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak, Ihobe Erakunde Laguntzailearen bidez, proiektu bakoitzari laguntzen saiatzen da, baliabideak eskura dituen neurrian, honako hauen bidez:



- “Negozio-eredua eta bideragarritasun komertziala” gaiari buruzko prestakuntza, eta, behar izanez gero, egiaztatze pertsonalizatuak
- Abian den proiektuaren arrakasta lortzen lagun dezaketen enpresekin edo adituekin harremanak
- Proiektua eta parte hartzen duen partzuergoa zabaltzea
- Proiektua merkatuan eskaria sortzen duten “driver-ekin” edo ingurumen-tresnekin lerrokatzea (adibidez: erosketa publiko berdea, Teknologia Garbien Euskal Zerrendako teknologientzako kenkari fiskalak, ingurumen-arau teknikoak...)
- Ingurumeneko izapide administratiboetara aurrea hartzea eta, ahal den neurrian, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzako langileak proiektuan parte hartzea
- Proiektua amaitu ondorengo jarraipena. Helburua proiektua bera ez denez, irtenbide ekoberritzailearen merkaturatzea bizkortzea baizik, programako enpresen behar berdeei erantzuten saiatzen da, baita proiektu bat amaitu eta zenbait urtera ere.

17. NOLA IZAN LAGUNTZA BAT LORTZEKO AUKERA GEHIAGO?

Hona hemen eskaerak arrakasta izateko giltza batzuk:

- **Enpresa sustatzaileak** (ahal izanez gero, industrialak) proiektuarekin **konpromiso argia** izatea
- Helburu zehatza, eta haren bideragarritasun teknikoa, ekonomikoa, ingurumenekoa eta komertziala frogatzeko fase eta zeregin egokiak dituenak
- Proiektua amaitu eta 3 urterako ingurumen-**emaitza** koherenteak (BEG murriztea, materialak aurrezteak) eta sozioekonomikoak (fakturazioa, inbertsioa eta enplegu gehigarria) **kalkulatzea**. Aurreko edizioetan onartutako proiektu gehienek gutxienez baldintza hauetako bat aurreikusi dute:
 - 500 tona BEG/urte baino gehiago murriztea, edo
 - 1.000 tona/urteko isurpena minimizatzea, edo
 - urtean proiektutik eratorritako 500.000 € baino gehiago fakturatzea
- Ondo aukeratu Ekodiseinua eta Erakustaldiko 1. ildora ala Ekoberrikuntzako 2. ildora aurkeztu. Enpresa batzuek proiektu oso bat aurkeztu diote 2. ildo zorrotzari eta, aldi berean, 1. ildoari, aurrekoan oinarritutako azpiproiektu bat.
- Laguntza programetarako eskaerak kudeatzeko laguntza espezializatua izatea, enpresak horretan esperientzia izan ezean
- **Zalantza administratibo edo teknikoren bat** izanez gero, erakunde laguntzaileari galdetu.

18. “BIZI-ZIKLOAREN ANALISIA” EGIN BEHAR DA?

1. eta 2. ildoetako proiektu guztiek (ikus Aginduaren 6.2.a artikulua) Bizi-Zikloaren Analisia (BZA) egin beharko dute, gutxienez BZA sinplifikatu bat, proiektuaren ondoriozko ingurumen-hobekuntzak balioztatzeko. Ihobe erakunde laguntzaileak Bizi-Zikloaren Analisia ahalik eta hoberen garatzeko jarraibideak emango ditu, bete beharreko gutxieneko betekizunak zehaztuko ditu eta metodo erraztuan dohainik sartzeko aukera emango du.

BZA bat egitea oso konplexua denez, Ihobek hori azpikontratatzeko gomendatzen du. Ihobek BZAetan esperientzia egiaztatua duten aholkularitza-, ingeniari- eta teknologia-zentroen erreferentziak eman ditzake.



Ekodiseinu-proiektuetarako (1. edo 2. ildokoak izan), ezinbestekoa da hasiera-hasieratik BZA batean oinarrituta hobekuntza bat planteatzea, bizi-zikloaren ikuspegitik, aurreko alternatiba edo erduekiko, edo proiektuaren ingurumen-bideragarritasuna balioztatzea funtsezkoa den beste proiektu mota batzuekiko. Ekodiseinu-proiektuetan, gutxienez azken etapan, ISO 14040 eta 14044 arauen arabera BZA zehatza egingo da.

19. ZERTAN BEREIZTEN DA DEIALDI HAU I+G+b BESTE LAGUNTZA-PROGRAMA BATZUETATIK?

Hauek dira ezberdintasun nagusiak:

- Gaikako lehentasunak ezartzea, 2030eko Ekonomia Zirkularreko Estrategiarekin, 2030eko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planarekin eta Europako Batzordearen tresna berde berriekin ("drivers") bat etorritik, adibidez. "Produktu Jasangarriaren Ekimena"
- Ingurumen Jasangarritasunerako Sailburuordetzak eta Ihobe haren erakunde laguntzaileak proiektuei balioa emateko irizpide estrategiko edo tekniko-ingurumenekoa ematea, bai ingurumen-politikako tresna europarrak (eta estatukoak eta EAEkoak) ezagutzen dituztelako edota haien enpresa- eta erakunde-harreman sarearen bidez.
- Proiektuekiko malgutasuna eta hurbiltasuna. Lagundutako proiektu bakoitzari Ihobe Erakunde Laguntzaileko teknikari bat esleitzen zaio. Teknikari horrek proiektua fabrian abiarazten du batez ere, eta prest dago enpresari edo proiektuaren partzuergoari emaitzak azkarrago lortzen eta, ahal den neurrian, oztopoak gainditzen laguntzeko.
- Lortutako emaitzak eta ikaskuntzen sustapen aktiboa

20. NOLA MURRIZTU BEROTEGI-EFEKTUKO GASEN EMISIOAK DEIALDI HONEKIN?

Ekonomia zirkularrak asko lagun dezake berotegi-efektuko gasak %45 arte murrizten (Ellen Mac Arthur eta Material Economics-en azterketen arabera), produktuen iraunkortasuna areagotzeko eta materialen kontsumoa murrizteko jardueren bidez.

Hori dela eta, BEGak murriztea eta karbonoaren neutraltasunerantz joatea 2030eko Ekonomia Zirkularreko Euskal Estrategiaren helburuetako bat da. Helburu hori bere gain hartzen du deialdiak berak eta balorazio irizpideetan txertatzen da. Izan ere, edizio bakar batean amaitutako proiektuen baturaren ingurumen-emaitzen aurreikuspenek BEGen 80.000 tona/urteko murrizketara heltzen dira. Kalkulu hori Bizi Zikloaren Analiaren (BZA) arabera egin da.

21. DEIALDI HONEK HONDAKINDEGIETAKO HONDAKINAK MURRIZTEN LAGUNTZEN DU?

Hondakinen isurketa murriztea Europako Batzordearen eta Euskadiko 2030eko Hondakinen Prebentzio eta Kudeaketa Planaren funtsezko helburua da. Hori lortzeko, hainbat tresna jarri dira martxan, hala nola Ingurumen Baimen Integratuak, Isurketa mugatzeko agindua edo Hondakinei eta Lurzoru kutsatuei buruzko 07/2022 Legean ezarritako isurketa-tasa berria (40 €/tona) eta errausketa.



Deialdi honek korronte espezifikoetarako isurketaren alternatiba berritzaileak badirela baieztatzen ere laguntzen du. Hala, irizpideak eta ezagutza garatzeko aukera ematen du, hau egin ahal izateko:


- zenbait hondakin-korronte isurtzea debekatzeko aginduak ematea
- ingurumenarekin lotutako arau teknikoak edo ziurtagiriak (CE marka, ...) garatzea, hondakinekin egindako materialak merkatuan onar daitezen

22.DEIALDI HAU ZIENTZIA, TEKNOLOGIA ETA BERRIKUNTZARAKO EUSKAL PLANEAN SARTZEN DA?

Bai. Deialdi hau Euskadiko 2030eko Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Planeko "Ekoberrikuntza" Aukera-Eremuan sartzen da. Plan honetan, gainera, Ekonomia Zirkularra lankidetzatrazkio-ekimen gisa definitu da.

23.AZKEN URTEETAN, EKOBERRIKUNTZA ZIRKULARREKO ZEIN PROIEKTUAK SUSTATU DIRA DEIALDI HAUEN BIDEZ?

Azken edizioetan egindako ekoberrikuntza zirkularreko 215 proiektuak lehentasunezko esparru nagusien artean banatu dira, ondoko grafikoan ikus daitekeen moduan.



Horrez gain, 2014 eta 2021 artean diruz lagundutako proiektuen zerrenda ere ematen da, gaiaren eta deialdiaren ildoaren arabera. Hona hemen iturriak:

- Ekonomia zirkularreko Erakustaldiko proiektuak, 2014tik 2016 urtera bitartekoak: [36 proiektuetako bakoitzaren laburpen-fitxa](#) (klik egin) eta [lehen hiru urteetako emaitzen ebaluazioa](#) (klik egin: 17x)



- Ekoberrikuntzako (klik egin) eta Ekodiseinuko 2016ko proiektuak (guztira: 30x)
- 2017ko Ekonomia zirkularreko Erakustaldiko proiektuak (klik egin), Ekodiseinukoak eta Ekoberrikuntzakoak (klik egin; guztira 37x)
- 2018ko Ekonomia zirkularreko Erakustaldiko proiektuak, Ekodiseinukoak eta Ekoberrikuntzakoak (klik egin: 29x)
- 2019ko Ekonomia zirkularreko Erakustaldiko proiektuak, Ekodiseinukoak eta Ekoberrikuntzakoak (klik egin: 36x)
- [Ekoberrikuntza zirkularreko 2020ko proiektuak](#) (klik egin: 26x)
- [2021 Proiektuak Ekoberrikuntza zirkularra](#) (klik egin: 40x)